

NOLA ERABILI

Menderakuntza bidezko perpausak -V-

-Kontsekutiboak 03:20

PROPOSAMENA

Bideo-gelara jo aurretik, perpaus kontsekutiboei buruzko orrialdeen kopiak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak klasean landu eta ikasleen zalantzak argitu.

-ATAL DRAMATIKO LUZEA: BEHERAPENAK

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Gidoia berridatzi. Gidoian letra lodiz azpimarratuta agertzen diren perpaus kontsekutiboak hartu, eta ahozko hizkeran erabili ohi den formara aldatu. Hau da, perpaus nagusia, *maila-hitza* eta guzti, perpausaren amaierara eraman eta lokailua eta menderagailua ezabatu.

Esaterako:

Gidoian zera agertzen da:

OLATZ.- Zu bai ausarta eta bihotzbera! Mikeli utzi? **Hain da baldarra non** ukitzen duen guztia hondatzen **baitu**. Zergatik ez du berak konpontzen?

Ikasleak zera idatzi beharko luke:

OLATZ.-Zu bai ausarta eta bihotzbera! Mikeli utzi? Ukitzen duen guztia hondatzen du eta. **Hain da baldarra**. Zergatik ez du berak konpontzen?

kontsekutiboak

Perpauk kontsekutiboek edo ondorio-perpausek kausa baten ondorioa adierazten dute, baina ondorio hori kuantifikatzaile batekin erlazionatuta ematen da.

Hain jakintsua da, **non** lehiaketa guztiak irabazten **baititu**.

Entzun duzuen adibidean, hiru osagai bereiz daitezke:

Batetik, *hain* maila-hitza daukagu;

bestetik, *non* lokailua eta

azkenik, *bait-* menderagailua.

Bestalde, adibidean argi asko ikus daitekeenez, bi perpauk dauzkagu.

Batetik, perpauk nagusia, maila-hitza daramana; eta, bestetik, perpauk kontsekutiboa, lokailua eta menderagailua daramatzana.

Perpauk nagusia <i>Maila-hitza</i>	Perpauk kontsekutiboa	
	<i>lokailua</i>	<i>menderagailua</i>
<i>HAIN</i>	<i>NON</i>	<i>bait-</i>
<i>HAINBESTE</i>	<i>EZEN</i>	<i>-n</i>
<i>HAINBAT</i>	<i>ZEIN ETA</i>	<i>0</i>
<i>HALAKO MOLDEZ</i>	<i>0</i>	<i>0</i>

hain

Perpaus kontsekutiboa, perpaus nagusiaren ondorioa dugu. Ondorio hori lehen perpausoko *hain* maila-hitzarekin lotuta dago.

Hain dotorea zen, non modako aldizkari batek deitu baitzion.

Hain letra zatarra zuen, ezen ez baitzion irakasleak azterketa ulertu.

Hain baldarra zen, non itsusi bihurtzen baitzuen galtzarik politena.

hain maila-hitza adjektibo, adberbio eta partizipioekin erabiltzen da perpaus nagusiaren kausaren nolakotasuna mailakatzeko.

Hain polita zen, non beste koadrila batekoa ematen baitzuen.
polita (adjektiboa)

Hain puskatuta dago, ezen ez baitu merezi konpontzea.
puskatuta (partizipioa)

Hain berandu zen, non denda guztiak itxita baitzeuden.
berandu (adberbioa)

Ekialdeko euskal hiztunek *-bait* aurrizkia erabiltzen dute. Mendebaldekoek, berriz, *-n* atzizkia.

Hain mizkina da, non bazkaria izugarri luzatzen zaion.

Hala ere, gaur egun *bait-* aurrizkia oso hedatuta dago mendebaldeko hiztunen artean ere.

Hain mizkina da, non bazkaria izugarri luzatzen baitzaio.

Maiz, perpaus nagusiko hitzen ordena aldatu egiten da, maila-hitza adizkiaren aurrean jarritz. Era horretako ordena perpausari balio enfatikoak emateko erabiltzen da.

Gorka hain da ederra, ezen berak eskatutako guztia egingo bainuke.

Hain da zoragarria izadia, zein eta bertan bizitzeko prest nagoen.

Farmaziako fakultatean ikasten ari diren neska-mutilak hain dira interesgarriak, non bertan matrikulatzea erabaki baitut.

Perpaus nagusiko adizkia lehenengo edo bigarren pertsonan badago, hain maila-hitzen ordez, sail berekoak diren *honen* eta *horren* ere erabil daitezke.

LOREA Ai! Olatz, Olatz, **hain** zara lotsatia eta beldurtia, **non** ohartu orduko, Gorka beste neska batekin joango baitzaizu.

OLATZ Eta zer nahi duzu nik egitea? **Honen** nekatua nengoen, **non** ez baineukan gogorik inorekin hitz egiteko.

MIKEL. - Arrazoia du Loreak, Olatz. **Horren** kokilduta ikusi zintudan Gorkaren ondoan, **ezen** ez baitzintudan ezagutu ere egin.

hainbeste / hainbat... non bait- / -n...

hainbeste eta *hainbat* maila-hitzak zenbatasuna adierazteko erabiltzen dira, hau da, perpaus nagusiko kausa kuantifikatzeko.

Hainbeste ordu eman ditut ilaran, **non** bulegariaren aurrera iritsi naizenean, ez **baitut** gogoratu zer esan behar nuen.

Hainbeste datu eman ditu, **non** modu atseginean hasitako hitzaldia aspergarri bilakatu **baitu** azkenerako.

Hainbat negar egin du neska-lagunak alde egin duelako, **ezen** begiak gorri-gorri jarri **baitzaizkio**.

Izen neurgaitzekin erabiltzen bada, maila-hitzari *-ko* atzizkia eranstean zaio.

Irrati horrek **hainbesteko** zarata ateratzen du, **ezen** hobe izango **baita** zaborretara botatzea.

Hainbestekoa izan zen larunbat goizeko haserrealdia, **non** pikutara bidaltzeko zorian izan **bainintzen**.

Gogoratzen dut egun batean ibaira joan nintzela bainu bat hartzera, eta **hainbesteko** beldurra pasa nuen, **non** ez **bainaiz** hurbildu berriro ibai hartara.

halako moldez

halako moldez eta horrelako ondorio-perpausak modua adierazteko erabiltzen dira.

Halako moldez aritu da, **non** gezurra zela uste izan **baitut**.

Tokien arabera, beste zenbait esapide ere erabiltzen dira, besteak beste: *halako eran*, *halako suertez*, *halako gisaz*, *halako maneran*, *halako modutan*, *halako moduz*...

BEHERAPENAK

- OLATZ.- Epa, Lore, zertan?
- LOREA.- Ikusten duzu, irratia konpontzen.
- OLATZ.- Ez al dabil?
- LOREA.- Ez, ez dabil. Atzo Mikeli utzi nion eta begira!
- OLATZ.- Gure Mikeli?
- LOREA.- Bai, gure Mikeli.
- OLATZ.- Zu bai ausarta eta bihotzbera. Mikeli utzi? **Hain da** baldarra, **non** ukitzen duen guztia hondatzen baitu. Zergatik ez du berak konpontzen?
- LOREA.- Berak konpondu? Bere eskuetan utzi berriro nire irratia? Ezta pentsatu ere! **Hain da... hain da...** isilduko naiz, bestela astakeria bat esango dut, eta gero damutu egin beharko dut.
- OLATZ.- Ez dakizu zer gertatu zaidan, Lorea.
- LOREA.- Nola jakingo dut bada?
- OLATZ.- Entzun! Etxera nentorrela, Garbiñeren denda aurretik pasatu naiz eta erakustokian zegoen gona batek deitu dit. Olatz! Olatz!
- LOREA.- Olatz! Olatz! Gona batek. **Hain** triste eta bakarti ikusi duzu gona gaxoa, **non** dendan sartu eta superwomanek egingo lukeen gisan salbatu egin baituzu.
- OLATZ.- **Hain** zen polita, Lorea, **non** ezin izan baitut tentazioa saihestu.
- LOREA.- Ea, erakutsi gona paregabe hori.
- OLATZ.- Gainera, **hain** zen merkea, **ezen** dirua galtzea **bailitzateke** ez erostea.
- LOREA.- Zenbat ordaindu duzu?
- OLATZ.- Hiru euro eta erdi.
- LOREA.- Hiru euro eta erdi? Nik ere nahi dut horrelako bat, **hain da** merkea.
- OLATZ.- Ez dakit horrelako gehiago izango duen. **Hainbeste** jende zegoen Grabiñeren dendan, **non** honezkero genero guztia saldua izango baitu.
- LOREA.- Merkealdiak dagoeneko hasi dira, ala?
- OLATZ.- Jakina, neska! Utzi irratia dagoen dagoenean eta goazen. Elastikoa behar dut gona honekin janzteko.
- LOREA.- Goazen ba. **Hainbeste** ordu eman ditut irrati zahar honi begira, **non** ezin hobeto etorriko baitzait dendaz denda ibiltzea.